Legez emandako eskurantzez baliaturik proposatu da hurrengo dekretua onestea.

En virtud de las atribuciones conferidas, se propone la aprobación del siguiente Decreto.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Dekretua /** Decreto: | **4601 / 2016** | **Erref. /** Ref.: | |
| **Gaia /** Asunto: | **Aprobación definitiva del Mapa de Ruido del municipio de Getxo y la Zonificación Acústica.** | | |
| **Arloa /** Área: | ***INGURU GIROA /*** **MEDIO AMBIENTE** | | |
| **Interesduna /** Interesado: | **DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA (MEDIO AMBIENTE DIR GRAL MEDIO AMBIENTE) / GOBIERNO VASCO-EUSKO JAURLARITZA (MEDIO AMBIENTE Y POLITICA TERRITORIAL)** | | |

## AURREKARIAK

**1.-** Alkatetzaren 2016ko abuztuaren 11ko 3063/2016 Dekretuaren bidez, Getxoko udalerriko zarataren mapa eta zonakatze akustikoa onetsi ziren behin-behinean, eta nahitaezko jendearen aurreko erakustaldia egin zen hilabetean. Horretarako, 2016ko irailaren 27ko 184. zenbakidun EAEko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bai eta 2016ko irailaren 19ko 179. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ere, jendeak adierazitako epean dokumentazioa azter zezan eta alegazioak egin zitzan.

**2.-** Jendaurrean erakusteko epea amaitu da, eta ez da alegaziorik aurkeztu; beraz, bidezkoa da zarataren mapa eta zonakatze akustikoa behin betiko onestea.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzari dokumentazioa igorriko zaio, baita Bizkaiko Foru Aldundiari ere. Halaber, ebazpen hau EAEko eta Bizkaiko aldizkari ofizialetan emango da argitara.

**3.-** Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legeko 4. artikuluko 4. atalean xedatutakoari jarraituz, udalari dagokio zarataren mapa onestea.
Era berean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluak xedatu zuenaren

## ANTECEDENTES

**1.-** Por Decreto de Alcaldía nº 3063/2016 de fecha 11 de agosto de 2016, se dispuso aprobar con carácter inicial el Mapa de Ruido del municipio de Getxo y la Zonificación Acústica y se sometió al preceptivo trámite de información pública por el plazo de un mes mediante anuncio insertado en el Boletín Oficial del País Vasco nº 184 de fecha 27 de septiembre de 2016 y en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 179 de fecha 19 de septiembre de 2016, al objeto de que cualquier persona pudiera examinar la documentación y formular alegaciones en el indicado plazo.

**2.-** Habiendo finalizado el período de información pública sin que se haya presentado ninguna alegación, procede en consecuencia la aprobación definitiva del Mapa de Ruido y la Zonificación Acústica.

La documentación se remitirá a la Viceconsejería de Medio Ambiente del Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Bizkaia; asimismo esta resolución se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco y en el de Bizkaia.

**3.-** Corresponde al ayuntamiento la aprobación del mapa de ruido tal y como recoge la Ley 37/2003 de 17 de noviembre del Ruido en el apartado 4 de su artículo 4.
Del mismo modo, el artículo 25 de la Ley 7/1985 de 2 de abril Reguladora de las Bases del Régimen Local señala que el municipio

Sinatua: Firmado:
Arantza Cabeza Lopez (INGURU GIRO ADMINISTRATIBO ARLOAREN Z.L.G.M.T/T.S.L.D. DEL AREA ADMINISTRATIVA DE MEDIO AMBIENTE)
Jose Luis Landa Arteche (Ingurumen Arloko Zinegotzi Arduraduna/CONCEJAL DE MEDIO AMBIENTE)
**Imanol Landa Jauregi (ALKATEA/EL ALCALDE) Data: 2016/11/10 Fecha: 10/11/2016**
Ignacio J. Etxebarria Etxeita (IDAZKARI NAGUSIA/EL SECRETARIO GENERAL)
Cod. Validacion: GET/DEK/2016/4601 SHzhHm9CbB

arabera, udalak eskumena izango du, nolanahi ere, honako arlo hauetan: hiriko ingurumenean, eta bereziki kutsadura akustikoarekiko babesean.
Azkenik, Euskadiko Toki Erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legeko 17.8. artikuluak udalerrien eskumenak jaso zituen. Halaber ezarri zuen, lege horretan eta aplika daitekeen legerian ezarritakoaren markoan, udalek eskumena izango dutela, nolanahi ere, honako arlo hauetan: plangintza orokorrean eta ingurumenaren eta garapen iraunkorraren sustapenean, kudeaketan, defentsan eta babesean, hiriguneetako argi-kutsadura eta kutsadura akustiko eta atmosferikoa barne.

ejercerá en todo caso como competencias propias las siguientes materias: Medio ambiente urbano, en particular….protección contra la contaminación acústica.
Por último la Ley 2/ 2016 de 7 de abril de Instituciones Locales de Euskadi, señala en el artículo 17.8 las competencias propias de los municipios estableciendo que en el marco de lo dispuesto en la presente ley y en la legislación que sea de aplicación, los municipios podrán ejercer competencias propias en los siguientes ámbitos materiales: Ordenación complementaria, promoción, gestión, defensa y protección del medio ambiente y desarrollo sostenible, incluida la protección contra la contaminación acústca, lumínica y atmosférica en las zonas urbanas.

**4.-** Laburbilduz, zarataren mapa egitea eta onestea ingurumena babesteko jardueraren barruan dago, udalari emandako eskumenen barruan, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25. artikuluaren arabera, baita alkatearen eskuduntzei buruzko lege horretako 21 s) artikuluaren arabera ere.

**4.-** En definitiva, la elaboración y aprobación del mapa de ruido, se encuadra en la actividad de protección del medio ambiente, dentro de las competencias atribuidas al municipio, artículo 25 de la ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de Bases de Régimen Local, así como por su artículo 21 s) dentro de las atribuciones del Alcalde.

Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan, eta 13. artikuluan bereziki, honako hau xedatu zen: eskumena duen administrazioak onetsiko du zarataren mapa, egindako alegazioak kontuan izanik, bi hilabeteko epean gehienez ere, alegazioak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.
Zarataren mapa onesteari buruzko erabakia EAEko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta egokia(k) d(ir)en lurralde historiko(eta)ko aldizkari ofiziale(t)an.

El Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y en concreto el artículo 13 recoge que la Administración competente procederá a la aprobación del mapa de ruido, teniendo en cuenta las alegaciones formuladas, en un plazo máximo de dos meses desde el fin del plazo de presentación de alegaciones.
El acuerdo de aprobación del mapa de ruido se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco y en el del , o de los, Territorios Históricos correspondientes.

Edonola ere, artikulu horren 4. puntuan jaso zenari jarraituz, zarataren mapak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzari igorriko zaizkio,bai eta lurralde historiko(eta)ko foru aldundi(ar/e)i ere, formatu digitalean. Haiekin batera, analisiari buruzko agiriak eta gaiari lotutako dokumentazio grafikoa bidali beharko dira.

En todo caso, tal y como establece el punto 4 del mismo artículo 13, los mapas de ruido se remitirán a la Viceconsejería de Medio Ambiente del Gobierno Vasco y a la o las Diputaciones Forales del o de los Territorios Históricos correspondientes, en formato digital, incluyendo los documentos de análisis y la documentación gráfica asociada.



Sinatua:
Firmado:
Arantza Cabeza Lopez (INGURU GIRO ADMINISTRATIBO ARLOAREN Z.L.G.M.T/T.S.L.D. DEL AREA ADMINISTRATIVA DE MEDIO AMBIENTE)
Jose Luis Landa Arteche (Ingurumen Arloko Zinegotzi Arduraduna/CONCEJAL DE MEDIO AMBIENTE)
**Imanol Landa Jauregi (ALKATEA/EL ALCALDE) Data: 2016/11/10 Fecha: 10/11/2016**
Ignacio J. Etxebarria Etxeita (IDAZKARI NAGUSIA/EL SECRETARIO GENERAL)
Getxo

**IKUSITA:** Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legea, Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua eta baterako gainerako legeria.

**VISTOS:** Ley 7/85, de 2 de Abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas; Ley 37/2003 de 17 de noviembre del Ruido,; Ley 3/1998, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, Decreto 213/2012 de 16 de octubre de contaminación acústica de la CAPV; y demás legislación concordante

Indarrean dagoen legeriak eman dizkidan ahalmenak betez,

En virtud de las atribuciones que me confiere la legalidad vigente.

**XEDATU DUT**

**VENGO EN DISPONER**

**LEHENENGOA**.- Getxoko udalerriko zaratatren mapa eta zonakatze akustikoa behin betiko onestea.

**PRIMERO.-** Aprobar definitivamente el Mapa de Ruido del municipio de Getxo y la Zonificación Acústica.

**BIGARRENA**.- Dokumentazioa formatu digitalean bidaltzea, analisiari buruzko agiriak eta gaiari lotutako dokumentazio grafikoa barne, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari.

**SEGUNDO.-** Remitir la documentación en formato digital, incluyendo los documentos de análisis y la documentación gráfica asociada a la Viceconsejería de Medio Ambiente del Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Bizkaia.

**HIRUGARRENA**.- Ebazpen hau EAEko Aldizkari Ofizialean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**TERCERO**: Publicar la presente resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurarik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/ administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri den egiaztapen-kode segurua erabiliz

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal ( http://www.getxo.eus/ Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Sinatua: Arantza Cabeza Lopez (INGURU GIRO ADMINISTRATIBO ARLOAREN Z.L.G.M.T/T.S.L.D. DEL AREA ADMINISTRATIVA DE MEDIO AMBIENTE)
Firmado: Jose Luis Landa Arteche (Ingurumen Arloko Zinegotzi Arduraduna/CONCEJAL DE MEDIO AMBIENTE)
**Imanol Landa Jauregi (ALKATEA/EL ALCALDE) Data: 2016/11/10 Fecha: 10/11/2016**
Ignacio J. Etxebarria Etxeita (IDAZKARI NAGUSIA/EL SECRETARIO GENERAL)